



**ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA**

Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza
Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES**

Viceconsejería de Empleo y Juventud
Dirección de Empleo e Inclusión

EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN ETA LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

Autonomia Estatutuaren 10. artikulua zehazten du Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela ekonomiaren bultzapen eta aurrerabidearen eta ekintza ekonomikoaren plangintzan, ekonomiaren antolaketa orokorraren arabera. 9. artikulua ezartzen du, berriz, ezen euskal botere publikoek, beroriei dagozkien alorretan, bereziki bultzatuko dutela bizitzeko eta lan egiteko baldintzak hobetzea, eta neurriak hartuko dituztela enpleguaren hazkundera eta ekonomiaren egonkortasuna sustatzeko.

Bestalde, Enpleguaren Legearen Testu Bateginak, zeina urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi baitzuen, Enplegu Sistema Nazional bat ezartzen du, deszentralizatua eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaz eta Autonomia Erkidegoetako Enplegu Zerbitzu Publikoek osatua.

Horrez gain, kontuan izan behar da Konstituzioak Ekonomia Ituna babesten duela, eta haren funtsezko printzipioa jasotzen dela abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan, zeinaren arabera lurralde historikoetako erakunde eskudunek aukera baitute beren tributu-sistema propioa mantendu, ezarri eta arautzeko.

Ekonomia Ituna da euskal autogobernuko oinarri finantzarioa, bere gain hartzen baitu subiranotasun fiskala, aukera ematen diona bere baliabide propioekin finantzatzeko Estatuak transferitutako eskumenak. Hori da euskal autogobernuaren singularitate eta espezifikotasun fiskal eta finantzarioa, bere funtzionaltasun guztia proiektatzen baitu eskumen transferituak egikaritzeko.

Finantzazio propioa izateak berezitasun propioa eta desberdina ematen digu, Estatuko enplegu-politiken gainerako kudeatzaileek ez dutena. Hala, enplegu-politika aktiboetako programa eta zerbitzuetarako baliabide ekonomikoak ez datoz Enplegu eta Gizarte Gaietako Konferentzia Sektorialean erabakitzen den funts-banaketatik, gainerako autonomia-erkidegoetan bezala. Izan ere, EAEk urtero portzentaje bat dauka, kupoa kalkulatzeko

egozpen-indizeari dagokiona: lanaren, enpleguaren eta lanbide-heziketaren arloko programen eta jarduketan kostua kupotik gutxitzen da.

Azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zaizkio eremu honetako eginkizunak eta zerbitzuak: lan-arloko legeria betearaztea lanean, enpleguan eta enplegurako lanbide-heziketan.

Arau-esparru berri horrek bide eman zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortzeko urriaren 13ko 3/2011 Legearen bidez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika aktiboak zuzenean kudeatzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, bestetik, enplegu-politika eta -planak sartzen ditu udalek beren eskumen propioak gara litzaketen hainbat eremutan, eta lege honek edukia ematen dio aurreikuspen horri.

Enplegu gehiago eta lanpostu hobeak sortzea dira Europako Enplegu Estrategiaren helburuetako bi, eta euskal gobernuak bere egin ditu. Euskadin enplegua da gizarteko tresna eratzaile eta integratzaile nagusia.

Besteak beste, 2010eko ekainaren 17an Europako Kontseiluak onartutako Europa 2020 Estrategiak Europako ekonomia 2020rako suspertzeko baldintzak sortu nahi ditu, oinarritzat hartuz hazkunde inteligente, jarraitu eta inklusibo bat, eta koordinazio handiagoa eskualdeko, estatuko eta Europako politiken artean. Horrela, hiru lehentasun nagusi ditu Europako ekonomia indartzeko, eta aurre egin ahal izateko mundializazioari, baliabide-eskasiari eta biztanleria zahartzeari: ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia; ekonomia berriztagarri ekologikoagoa eta lehiakorragoa; hazkunde inklusiboa, eta enplegua eta gizarte-eta lurralde-kohesioa sortzen duen ekonomia.

Europako estrategiaren helburu nagusi da, halaber, emakumeak lan-merkatuan aritzeko oztopoak kentzea, eta hainbat neurri abiaraztera premiatzen du: enpleguaren arloko genero-arrakalak ezabatzea, gizonak eta emakumeak beren bizi-zikloan zehar bizitza pribatua eta laborala hobeto uztartzea, bai eta emakumeenganako indarkeria mota guztiak borrokatzea ere, besteak beste lanpostuko jazarpena.

Lege honek arau-esparru bat eratu nahi du, Europako enplegu-estrategiarekin bat etorri eta enplegu-arloko tratatuetako konpromisoak bere gain hartzen dituen, enplegu-arloko politika eta sustapena garatzeko testuinguru egokia ezarriz.

Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarteak eta ekonomiak aldaketa nabarmenak izan ditu azken urteotan, eta enplegu-politikan eta lan-merkatuan eragin handia duten joera berriak agertu dira. Azken urteotan fenomeno berriak agertu dira gizartean, ekonomian, lan-merkatuan eta enplegu-politiketan, lurraldeek aurrerapen handiak egin dituzte koordinatu, erlazionatu eta enplegu-politikak kudeatzeko tresna berriak sortzen beren beharren arabera, eta beharrezkoa da Euskal Enplegu Sistema eta Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzua antolatuko duen lege bat egotea, ganoraz eta malgutasunez erantzun ahal izateko pertsonen, enpresen, sektoreen eta lurraldeen premiei, beti lehentasuna emanez politika publikoen arreta behar duten kolektiboei.

Euskal Enplegu Sistemaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lege bat behar da, Euskal Enplegu Sistemaren printzipio gidariak ezartzeko, eragileen arteko harremanak arautzeko eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-politika bateratu bat garatzeko.

Illo horretan, euskal enplegu-sistema unibertsal bat eratu nahi da, bere zerbitzu eta programen bidez enplegarritasuna eta enpleguaren kalitatea hobetuko dituen, lan-merkatuan aukera-berdintasuna sustatuko duena, eta enplegu-eskaintza eta -eskaria egokituko dituen kuantitatiboki eta kualitatiboki. Enplegu-politikak, halaber, etengabeko prestakuntza bultzatuko du, bai eta langileen enpleguaren kalitatea ere, eta ahalegin bereziak egingo ditu laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen alde.

Legeak indarra ematen dio euskal enplegu-politika integral eta zeharkako bati, eta politika hori jardueren garapen bateratu baten bidez gauzatu behar da, modu koordinatuan eta gainerako politika publikoekin batera. Era berean, ezinbestekoa da erakundeen eta sailen arteko lankidetzak aukera-iturritzat hartzea. Sistemaren barruko eragile guztien parte-hartzea sustatu behar da, Eusko Jaurlaritzaren eta Enplegu Zerbitzu Publikoa den Lanbideren gidaritzapean.

Horretan oinarriturik, enplegu-politika planifikatzeko hainbat tresna daude: –Enpleguaren Euskal Estrategia, Enpleguaren Plan Estrategikoa, Lanbideren Plan Estrategikoa, Tokiko eta/edo Eskualdeko Enplegu Planak–, denak ala denak koordinaturik eta lankidetzan Eusko Jaurlaritza, Lanbide, foru-aldundi eta udalen artean.

Legeak Euskal Enplegu Sistemako eragileak identifikatu eta Euskal Enplegu Sistemaren Batzorde Nagusia eratzen du, hau da, enplegu-politika gauzatu ahal izateko aholku- eta partehartze-organoa.

Legean ageri dira Euskal Enplegu Sistemako tresnak: lan-bitartekaritza, enplegu-politika aktiboak eta enplegu-politika aktiboen eta langabeziaren aurreko babes ekonomikoaren arteko koordinazioa, bai eta dirusarrerak bermatzeko prestazioak ere.

V. kapituluan ageri dira Euskal Enplegu Sistemako erakundeen eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Euskal Enplegu Sistemaren eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren legeak Lanbide berritzeko eta modernizatzeko tresna izan nahi du, lanbide-kualifikazioa eta -birziklatzea hobetuz, eta langabezian eta batez ere lan-merkatutik urrun dauden pertsonak laneratzea bultzatuz.

Horretaz gainera, Europar Batasunaren eskakizun berrien artean dago enplegu-zerbitzu publikoen zeregina birdefinitzea, zerbitzu arin eta modernoagoak eman ditzaten, pertsonen, enpresei eta lurraldeei zuzenduak, enplegurako soluzio aktiboak eskaini ahal izan ditzaten kontsentsuzko estrategiak garatuz Gobernuaren eta gizarte- nahiz lurralde-eragileen artean.

Horregatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua berritu eta modernizatzeko testuinguru horretan, zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzea sustatuko da, izaera juridiko propioarekin eta lan egiteko ahalmen osoarekin, egitura malguagoa eta antolaketa eraginkorragoa edukita aurre egin ahal izan diezaion etengabe eraldatzen ari den lan-merkatuari.

Horrek esan nahi du bere finantzen antolaketari eta barne egiturari zuzenbide zibileko, merkataritza-zuzenbideko eta lan-zuzenbideko arauak aplikatuko zaizkiola; administrazio-ahalez baliatzen denean, baina, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidea erregulatzen duen araudia eta gainerako araudi orokor eta sektorial publikoa aplikatuko zaizkio.

2017ko maiatzaren 31ko Aginduak, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoen ekonomia, finantzak eta kudeaketa etengabe kontrolatzeari buruzkoak dioenez, EAEko administrazio orokorraren eta instituzionalaren egitura antolaturik dago Autonomia Erkidegoari agindutako helburuak betetzeko, eta zenbaitetan zuzenbide pribatua erabiltzen da, zuzenbide publikoa eta pribatua uztartzeak ere eraginkorrako izaten lagundu dezan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzearen azken helburua da ahalik eta eraginkorren kudeatzea enplegu-politika aktiboak, euskal herritarroi kalitate handiko zerbitzu bat eskaintzeko.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 938 langile ditu –Gasteizko egoitza nagusian, hiriburu bakoitzeko hiru lurralde-bulegoetan eta 42 bulegoetan–, eta Euskal Autonomia Erkidego osoko pertsonen nahiz enpresei ematen dizkie zerbitzuak. Bulego horietatik kudeatu eta koordinatzen dira landun, langabe nahiz enpresentzako enplegu-zerbitzuak, eta zerbitzuaren antolaketa-premiei eskatzen duten esparruetan jarduten dute.

2018an, 415.049 pertsona egon dira enplegu-eskatzaile moduan altan Lanbiden, % 54 emakumeak.

Ondoko tauletan agertzen da, oro har, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2018an izandako jarduera:

LANBIDEn enplegu-eskatzaile moduan altan egon diren pertsonak

2018ko uneren batean

	eskatzaile-kopurua			Emakumeen %
	Gizona	Emakumea	Guztira	
2018ko uneren batean okupatuak	114.109	136.742	250.851	% 54,5
2018ko uneren batean langabeak	107.112	127.318	234.430	% 54,3
Enplegu-eskatzaileak guztira	190.451	224.598	415.049	% 54,1

Adinaren eta sexuaren arabera okupatuak

2018ko uneren batean

	eskatzaile-kopurua			Emakumeen %
	Gizona	Emakumea	Guztira	
<20 urte	1.863	1.139	3.002	% 37,9
20-24 urte	10.626	9.675	20.301	% 47,7
25-29 urte	15.260	18.037	33.297	% 54,2
30-34 urte	15.248	18.096	33.344	% 54,3
35-39 urte	16.274	19.021	35.295	% 53,9
40-44 urte	16.943	20.627	37.570	% 54,9
45-49 urte	14.629	18.758	33.387	% 56,2

50-54 urte	12.109	15.889	27.998	% 56,8
55-59 urte	8.244	10.434	18.678	% 55,9
60-64 urte	2.732	4.476	7.208	% 62,1
>64 urte	181	590	771	% 76,5
Guztira	114.109	136.742	250.851	% 54,5

Adinaren eta sexuaren arabera langabeak

2018ko uneren batean

	eskatzaile-kopurua			Emakumeen %
	Gizona	Emakumea	Guztira	
<20 urte	3.361	2.233	5.594	% 39,9
20-24 urte	7.708	7.772	15.480	% 50,2
25-29 urte	12.057	13.968	26.025	% 53,7
30-34 urte	11.583	14.812	26.395	% 56,1
35-39 urte	13.166	16.691	29.857	% 55,9
40-44 urte	14.261	17.482	31.743	% 55,1
45-49 urte	13.308	15.565	28.873	% 53,9
50-54 urte	12.179	13.984	26.163	% 53,4
55-59 urte	10.928	12.547	23.475	% 53,4
60-64 urte	8.201	11.329	19.530	% 58,0
>64 urte	360	935	1.295	% 72,2
Guztira	107.112	127.318	234.430	% 54,3

Iturria: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
Nork egina: Lanbideko Kabinete Teknikoa

2018an Lanbideren zerbitzuak jaso dituzten enplegu-eskatzaileak, sexuaren eta adinaren arabera

2018	gizonezkoek jasotako zerbitzuak			emakumeek jasotako zerbitzuak			Jasotako zerbitzuak, guztira		
	Orientazioa	Prestakuntza	Guztira	Orientazioa	Prestakuntza	Guztira	Orientazioa	Prestakuntza	Guztira
<29	15.310	4.690	18.055	14.372	3.107	16.196	29.682	7.797	37.479
30-44	21.177	5.192	24.861	25.473	5.308	28.905	46.650	10.500	57.150
45-54	13.906	2.818	15.944	15.585	3.152	17.520	29.491	5.970	35.461
55 eta gehiago	8.355	940	9.232	8.575	943	9.400	16.930	1.883	18.813
Guztira	58.748	13.640	68.092	64.005	12.510	72.021	122.753	26.150	148.903

Iturria: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
Nork egina: Lanbideko Kabinete Teknikoa

Bitartekaritzari dagokionez, erakunde laguntzaileen sarearen bitartez, 6.727 lanpostu kudeatu ziren eta, orotara, 22.677 lanpostu kudeatu ziren. Haietatik 14.216 lanpostu Lanbidek

bidalitako hautagaiekin bete ziren (% 62,69). Enplegu-eskaintzek 286.327 hautagai izan dituzte, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak nahiz erakunde laguntzaileek kudeatu dituzte.

Halaber, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, likidazio-prozesuan dagoen Hobetuz Fundazio Publikoko langileak Lanbiden sartuko dira; hala, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain hartuko ditu Fundazioaren prestakuntza jarraituko lanak.

Taula honetan dago laburtuta Hobetuzen 2018ko jarduerak:

Hobetuz 2018

2018an gauzatutako ekintzak

Parte-hartzaileak	40.215
Enpresen ekintza estrategikoetarako deialdia	14.433
Eskaintza-deialdia	25.782
Prestakuntza-jarduerak	4.072
Enpresen ekintza estrategikoetarako deialdia	1.652
Eskaintza-deialdia	2.420
Enpresen ekintza estrategikoetarako deialdian parte hartu duten enpresak	370

Iturria: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
Nork egin: Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren une honetako zerbitzua eta jarduerak ikusirik, bai eta etorkizunean abiarazi nahi dituenak ere, Lanbide erreformatu eta modernizatzeko dokumentuan agertzen den moduan, Lanbideko bulegoen eta erakunde laguntzaileen bidez, haren izaera juridikoa aldatzea justifikatzen da.

Vitoria-Gasteiz.

Sin: Amaia Arteaga Dañobeitia
Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria

O. E. Marcos Muro Nájera
Enplegu eta Gazteriako sailburuordea